

## Adinekoen zaintza → Inkesta

### Hilabete sariak baino handiagoak dira prezioak

Zenbait zahar etxe mota daude, publikoak, hitzartuak eta pribatuak. Prezioak horren arabera izaten dira. Publikoetan eta hitzartuetan, banaz bertzeoko prezioa 2.200 eurokoa da. Oheak berak 1.500 euro balio du, eta horri erantsi behar zaio bezeroak behar dituen arten ordaina. Erretreta apala baldin badu,



Bi emakume, elkarrekin hizketan. BERRIA

zaharri ehun euro utziko dizkiote hila-betean, nahi bezala xahutzeko. Bezeroak erretreta etxea ordaintzeko dirurik ez badu, Departamenduak familiari eskatuko dio. Familiak ez badu aski, hainbat laguntza eskainiko dizkio zaharri, bai logela ordaindu ahal izateko, bai artak ordaintzeko. Zahar etxeak laguntza ematen die familiei prozedura korapilatu horretan.

# 70

■ **Ohe beharra.** Zahar etxeetako egoera zuzentzeko asmoz, Kontseilu Nagusiak 2006-2011 plangintza osatu zuen. Epe horretan, 1.435 toki gehiago sortu behar zirela ebatzi zuen Pauek. Geroztik, 308 toki egitea onartu du, baina errealitatean sortu dituztenak 70 dira.

### Aitor Renteria Baiona

Uda atarian TNS-Sofres inkesta etxeak egindako ikerketaren emaitzak bazterrak inarrosi ditu. Herritarren %52k begi txarrez ikusten ditu zahar etxeak. Arazo fisikoak dituen zaharra beregain hartzea ezinezkoa zaiela diote. Horrez gain, herritarren %71ren iritziz erakunde publikoek ez diete behar duten tratatu edo zerbitzu egokia ematen zaharrei. Ipar Euskal Herriko eta Frantziako emaitzen arteko ezberdintasunik ez dagoela diote bertako gizarte eragileek. Azken urteotan iritziak okerrera egin du. 2003an %63k zeukaten iritzi txarra; 2004an, %55ek; 2005ean, %67k; eta, 2007an, %68k.

Bost pertsonatik batek autonomia fisiko edo psikiko urria daukan senideren bat du. 60 urtean, bost bider handiagoa da 75 urtez gorakoen kopurua. Frantziako aurreikuspenen arabera, 2040an 1,2 milioi zahar menpekotasun egoeran biziko dira. 2000. urteari erkatuz, %43 emendatuko da kopurua.

«Iritzi publikoa gero eta gogorragoa da, jende askok luzaz pairatu duelako dependentziaren errealitatea», dio TNS-Sofresek. Iritzi horietan jendearen sakoneko ezintasuna islatzen dela diote inkestatzaileek.

Jendearen %55ek dio ezin dela ezintasuna psikiko edo fisiko duen senidea etxean atxiki. Baina oraindik gehiago dira zahar etxea ezin dutela ordaindu diotenak: %76. Bana bertzeoko kopuru horrek, errealitate mingarriagoa gordetzen du. Bana bertzeoko kopurua izanik, egoera okerragoa da maila ekonomiko apalagoa dutenen artean. Horien %85ek dio ezin lukeela ordaindu.

### Zahar etxeak jomugan

Desberdintasun sozialen gainetik, gizarteak, oro har, ez du zahar etxeen irudi onik. Galdekatuena %82k uste dute zaharrek ez dutela zahar etxera joan nahi, eta %79k aitortzen du gogoz kontra eramaten dituztela zahar etxeetara. Erantzunek argi erakusten dute familiek ezin bertzean egiten dutela urratsa, ez adosturiko erabaki baten ondoren.



Adineko pertsonak, Isturitzeko zaharren egoitzan. GAIZKA IROZ

Uda atarian TNS-Sofres etxeak egindako inkestak erakusten du herritarren erdiak baino gehiagok ezingo luketela menpekotasuna duen zaharra etxean atxiki, eta ezin dutela zahar etxea ordaindu.

# Etxean ezin eta kanpoan nahi ez

Ortizumuga ilun horretako hodei beltzera tratatu txarren mamua da. Ingurumen hori arautzea eta jarraipen zorrotza egitea eskatzen dute inkestatu gehienek. Tratatu txarrak saihesteko asmoz proposatzen dituzten neurrien artean honako hauek aipatzen dituzte: zahar etxeetan baliabide eta langile gehiago egotea, prestakuntza egokia eskaintzea eta langileen jarduna zorrotzago zaintzea. Zahar etxeetan eguneko edozein unetan osasun zerbitzuak presente egon behar direla diote gehienek, 24 oronez.

Zahar etxeen argazki orokorra ere, aski adierazgarria da. Bana bertzeoko adina 86 urtekoa da, eta bertan egiten duten egonaldia lau urte ingurukoa. Baina eritasuna-

ren eraginez, zahar etxeak biziaren bidaian azken urteotako portua bihurtzen dira. Familiek konfiantza dute elementu hori.

Zahar etxe publiko eta pribatuak ez dituzte prezio berak. Publikoetan, eguneko alokairuaren bana bertzeoko prezioa 52 eurokoa da, eta, pribatuetan, aise hurbiltzen da 70 eurotara. Osasun zerbitzuak ere garestiago izaten dira.

Kontrako iritziaz, berriz, zahar etxeek urteotan metaturiko gibe-leratzea aipatzen dute. Erakunde publikoek baliabide gehiago eskatzen dizkiete. Dituzten baliabide ekonomikoaren arabera hartzen dituzte langileak, eta laguntza publiko murriztu bada, erizain edo sendagileek ez dute astirik ukatzen artak ongi egiteko.

Departamenduak du zaharrei laguntza emateko eskumena. 600 euroko erretreta baldin badu eta zahar etxeko egonaldia 2.200 eurokoa baldin bada hila-betean, departamenduak beregain hartuko du diferentzia, seme-alabek ordaintzeko ahalik ez badute.

Erretreta, seme-alaben diru sartzeak eta osasun artak dira ordaindu beharreko kopurua finkatzeko irizpideak. Anitz dira prozedura hori ezagutzen ez dutenak, eta, ondorioz, laguntzen kopurua ezagutu gabe, uko egiten diotenak zahar etxeari.

Horren eragin zuzena ikusten da bertze multzoan, zaharra etxean atxiki ezin dutela dioten taldean, alegia. Bizi esperantza gero eta luzeagoa da. Ondorioz, Alzhei-

merraren moduko eritasunak ugariagoak dira. Familiek ez dute prestakuntza berezirik ukan, eta, gehienetan, ez dakite nola kudeatu egoera hori. Erieteetako psikologoek bertze elementu bat aipatzen dute. Familiek egunerokan ikusten dute ahaidearen desitxuratzeari, gainbehera prozesua.

### Lau herritarretik hiruk aitortzen du ezingo lukeela zahar etxea ordaindu

### Jendeak eredu publikoa atxiki nahi du iturri ekonomikoaren arabera moldatuz

Alde batetik, ez dakite kudeatzen, eta, bertze alde batetik, norbaiten proiektzioa egiten dute.

Horrela, sentimendu eta errealitate kontrajarriak sortzen direla nabarmetzen dute. Batetik, geroan gerta dakiekena ikusten dute familiek zaharrearagan, eta, bertzetik, ez dute konfiantzarik, ez baliabiderik, zahar etxera eramateko. Zaharra «alde batera» uztearen sentimendua sortzen zaiela azpimarratzen dute.

Inkestan nabarmen ikusten da familien ezinegona. Zaharrek etxean atxikitzeko beharko litzuketen aukeren artean, %95 diru laguntza gehiago beharko liratekeela diote, %93k zaharren egoerari ihardesteko prestakuntza beharra daukatela azaltzen dute, %95ek «atsedenaldiak» antolatzearen beharra dagoela, zaharra aldi baterako eramanez zahar etxera. Legeak etxeko laguntzailearen estatua arautu beharko lukeela dio galdekatuena %91k.

### Geroaren kezka

Erretretarako adina luzatzea eztabaidatzen ari den unean, zaharren laguntzarako iturriak emendatzea eztabaidagai dira. %19k elkartasun eredu atxiki nahi du zergak emendatuz, %45ek diru iturrien arabera egoera osatu nahi du zergak emendatzearekin batera. %24k asurantzia pribatua hartzeko aukera sostengatzen du, behar delarik zahar etxeko xahutzeak ordaindu ahal izateko.

**10»** Manifestaziora deitu du Segik hilaren 11rako Donibane Lohitzunen, atxiloketak salatzen

**13»** Auzitegiak arrazoi eman dio Udalari, eta 'Bera' izango da herri horretako izen ofizial bakarra

## Adinekoen zaintza → Elkarriketa

### Lege egitasmoa iragarri du Frantziak heldu den urterako

Adineko pertsonen arloan diharduten eragile eta erakunde guztiak bildu nahi ditu Frantziako gobernuak. Egoerari eta beharrei buruzko iritzia biltzea da xedea, 2010ean lege egitasmo bat aurkezteko asmoz. Frantziar, zahar etxeetako ohe kopurua biziki emendatu nahi dutela azaldu zuen maiatzean Valerie Letard

Elkartasunerako Estatu Idazkariak. 2009ko aurrekontuetan agertzen da 12.500 toki gehiago sortu nahi dituztela. 2008ko helburua 7.500 sortzea zelarik. Udazkenean gizarte eragileekin bilduko dela iragarri zuen Letardek, haien iritziak bildu ondoren lege egitasmoa osatzen hasteko. Hala ere, azken hitza Nicolas Sarkozy Frantziako presidentearen esku egonen da.



**Iritzi publikoa gero eta gogorragoa da, jendeak dependentziaren errealitatea pairatu duelako»**

TNS-SOFRES  
Ikerketa egin duen erakundea

**0,6**

■ **Zaharretxeak.** Lanpostu guztiak kontuan harturik (erizain, zaindari, garbitzaile eta abar) zahar bakoitzeko 0,6 langile daude Ipar Euskal Herriko zahar etxe gehienetan. Europa Iparraldeko herrietan kopuru hori bikoizten dute, aspaldian hasi zirelako plangintza eraginkorrik osatzen.

### Maryse Lacoste → M. Caudron zahar etxe burua

Zaharren egoeran ahaideen bizi proiektzioa egiten da, eta ondorioz jendeak hori ez onartzea guztiz ulergarria dela dio Lacostek

## «Ahaide baten dependentzia onargaitza da guztiontzat»



NICOLAS MOLLO

#### A. Renteria Baiona

Zahar etxeek ez dute aski tokirik eskari guztiak onartzeko. Alta, TNS-Sofres etxearen inkestaren arabera, gizartearen kontraesan nabarmena da. Jendeak ez dituzte zaharrak etxean atxiki nahi, baina, halaber, zahar etxei dago kienez, gero eta iritzi txarragoa daukate. Kontraesanak aipatu ditu Marie Caudron zahar etxe zuzendari Maryse Lacostek.

#### Jendeak ez ditu begionez ikusten zahar etxeak. Zergatik?

Erretreta hartzean erabat aldatzen da biziaren erritmoa. Biziak hainbat ezusteko ditu, erortzea, eritasunak, burua galtzea. Ahaide baten dependentzia onargaitza da guztiontzat. Erabaki zaila da. Gizarteak biziaren erritmoak aldatu ditu. Gazteak lanean ari dira, eta ez dute zaharrez arduratu

tzeko betarik. Hirugarren baten beharra daukate haietaz okupatzeko, garbiketa egiteko, jateko edo jagoteko. Denek dakigu zahartzarua helduko dela, baina ez dugu onartu nahi. Lehen bi edo hiru belaunaldi bizi ziren etxe berean. Etxeko lanak, zaharrak barne, partekatzen ziren. Bukatu da familia tradizionala eta ondorio anitz ditu. Ez da nehor zaharren ardura hartzeko egun osoan. Dependentzia txikia delarik etxean gordetzeko aukera dago, baina erabatekoa delarik, zahar etxea da aterabidea. Onartzea zaila da. Bakoitzak biziaren proiektzioa ikusten du zaharregian. Haiiek eskasten ari direla ikusten, identifikazioa gertatzen da. Errealitate hori onartzea zaila da.

**Batetik ez dute ahalik zaharra atxikitzeko, bertetik ez dute konfiantzarik zahar etxeetan.**

Gogoz kontra hartutako erabakia da, mingarria. Urratsa egiten duenak hobendun sentitzen du bere burua, biziaren eman diona karga bilakatu, ardura hori bere gainetik kentzen duelako. Egin beharreko lana bikoitza da, zaharrari begira noski, baina baita familiei begira

**«Ulertu behar dute ez dutela gainetik kentzen zaharra, gure eskuetan utzi baizik»**

ere. Ulertu behar dute ez dutela «gainetik kendu», gure eskuetan utzi baizik. Haietaz arduratzea da gure lana; egunean, 24 oren. Arta guztiak emanen dizkiogu, eta familiarik, zahartzaroko alde txarrak utzita, momentu onak izateko aukera daukate.

**Zahar etxeen irudia ez da ona. Tratu**

**txarren susmoa dago, garestiegiak direla...**

Bizi itxaropena gero eta luzeagoa da. Gero eta handiagoa da zahar etxeetan sartzeko eskaria gure artean. Baina ohe kopurua ez da aski. Zahar etxea ez da hotel bat. Gero eta gehiago, arta etxeak bilakatzen dira. Ohearen prezioari erizain, psikologo eta laguntzaileen xahutzeak gehitu behar zaizkio. Ikusita hilabete sariak, normalean da pentsatzea garestia dela. Osasun zerbitzu eta laguntzaileen kopuruak egoeraren araberakoa izan behar du. Bermatzen ez bada, ezin da pertsonaz ongi arduratu, eta atea zabalik uzten zaio tratu txarrari. Ez dut erran nahi nahitara egiten den tratu txarra, atentziorik eza baizik. Rationak sobera apalak dira. Anitzetan langile bakarra dago bi bezeror arduratzeko. Gurean 0,6 langi-

le dago bezeroko. Suitzan edo Alemanian, adibidez, 1,2 langile bezeror bakoitzeko.

**Suitzako eta hemengo egoera erakatu dituzu. Zergatik dago ezberdintasun hori?**

Gizartearen bilakaera aurreikusitako dutelako herrialde horietan. Haien egitura sendoa osatu dute, eta hemen ez dugu deusegin. Oheak falta dira. Oheak sortzeko planak egiten dira, baina ez dira betetzen. Aldi berean, gizarte gero eta zaharragoa da; ondorioz, behar handiagoak, egin beharreko inbertsioa, handiagoa. Gure egitura, adibidez, ase ezin ditugun 40 eskari daukagu urtean. Ez dira kopuru hutsak. Pertsona bakoitzaren gibelean errealitate bat dago. Eskari guztiak beharren arabera sailkatzen ditugu, eta horrela finkatzen dira lehentasunak.



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

## A-8 AUTOBIDEA ITXIKO DUTE GAUEZ, ZARAUZ ETA DONOSTIA ARTEAN

*Bi galtzadak itxiko dituzte, ostegun gaueko 10etatik (uztailak 2) ostiral goizeko 6etara (uztailak 3).  
Orio eta Aritzeta artean A-8 autobidea sei lerroa zabaltzeko obregatik egin behar da mozketak.*

Orio eta Aritzeta artean A-8 autobidea sei lerroa zabaltzeko obrak direla-eta, erabat itxiko dute gauez A-8 autobidea, Zarauz eta Donostia artean.

Bi galtzadak itxiko dituzte, ostegun gaueko 10etatik (uztailak 2) ostiral goizeko 6etara (uztailak 3).

**Ordezko bidea: N-634 errepeidea.**  
**Informazio gehiago izateko, web orri honetan kontsultatu:**

[www.bidegi.net](http://www.bidegi.net)